

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kultura, kirol eta gizarte elkarteei zuzendutako 2024ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2024ko maiatzaren 16ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 762973.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/762973>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke irabazi-asmorik gabeko elkarte, kultur elkarte, kirol elkarte eta elkarte publiko eta pribatuak, baldin eta legez eratuta/erregistratuta badaude eta egoitza soziala Zuiako udalerrian badute.

Bigarrena. Xedea

Zuiako udalerrian, kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak antolatzeke dirulaguntzak ematen laguntzea, aurrekontu-mugen barruan, eta helburu batzuk zehaztea, herritarrei, baldintza berdinetan, prestazio horiek jasotzeko aukera bermatzeko, udalaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta jarduerak osatzeko edo ordeztzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 16an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kultura eta gizarte elkarteentzako aurrekontu-partida 334.481.000 zenbakiduna da (29.000,00 euro), eta kirol elkarteentzako, berriz, 341.481.000 zenbakiduna (26.000,00 euro), Zuiako Udalaren 2024ko ekitaldiko gastu-aurrekontutik aterata.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta zazpigarren oinarrian eskatutako agiriak aurkezteko epea ekaineko azken laneguna izango da. Interesa duten erakundeek 2023/2024 ikasturtean egin nahi dituzten jardueren programa/proiektua aurkeztuko dute. Elkarte guztiek ezarritako epean aurkeztu beharko dute eskabidea.

Unean uneko eta/edo ezohiko jarduera edo programetarako, programatutako jarduera hasi baino hilabete lehenago aurkeztuko dira. Edonola ere, mugaeguna urte horretako azaroaren 19a izango da.

Murgia, 2024ko maiatzaren 23a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA